



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK IRAKURTZEKO

Fitxa teknikoa
Sinopsia
Proposamen
didaktiko hau
lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO JARDUERA

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarrizketarako gida



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean
Pertsonaien
deskribapena
Gidoiari buruz
Elkarrizketa sustatzeko
proposamenak:
Laguntasuna
Familia
Ariketa:
Zinemaren txokoa



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO**

FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Teresa eta Galtzagorri

Adiskidetasunaren magia

Herrialdea: Espainia

Produktorea: Dibulitoon Studio

Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga

Gidoia: Juan Luis Carreras

Urtea: 2017

Iraupena: 75 minutu

Musika: Joseba Beristain

SINOPSIA

Udaberria iritsi da eta urtero bezala, Galtzagorriak lanean hasi dira dena loratzen. Denak Tim gaztea izan ezik. Timek nahiago du bere abentura bizi. Feriatik entzuten dituen soinu erakargarriei jarraituz, gainerako iratxoengandik urrundu eta Vlad feriante zitalaren hatzaparretan eroriko da. Bere bizitza erabat laztuz. Dena aldatuko da, ordea, Teresa, neskabila bakarti, bizkor eta bizia, zirkora doan egunean. Tim ikusi orduko, Teresa txundituta geratuko da. Timek era berean, neskatoaren bidez, bertatik ihes egiteko aukera topatuko du. Hortik aurrera mundu berri bat sortuko da haien artean. Ikusi eta elkar ulertu, dena bat. Hezur ta mami izango dira. Betiko lagun.

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO HAU LANTZEKO
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekinekin konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko.

Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarrikeria horiek gerta daitezkeen beharrezko baldintzak ahalbideratzea. Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarrikeria parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarrikeria sustatzeko eta gidatzeko balia ditzan.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO**



Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkeztzen dizuegu, ikasgelan elkarrizketa arakatzaila sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

ARAKATU

Nola jakin dezakegu...?
Nola bila dezakegu...?

HIPOTESIAK FORMULATU

Zer azalpen izan dezake honako honek?
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

BESTE BIDE BATZUK BILATU

Zer beste modutan azal dezakegu...?
Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?

DEFINITU

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?

PAREKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK BILATU

Zer dute amankomunean...?

SAILKATU

Zenbat modutan sailka dezakegu?

ARRAZOIAK ESKATU

Zer arrazoi duzu honako hori esateko?

ONDORIOAK ATERA

Baieztape hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU

Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI

Zer adierazi nahi du keinu horrek?

LABURTU

Hitz gutxitan azal dezakezu...?

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarrizketa du oinarri beraz, azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jarri daitezke elkarrizketaren bidez; beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu; gure iritzia argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu (modu honetan errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekiko enpatia izatea).



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO JARDUERA**



**FILMAREN AZALA ETA IZENBURUTIK ABIATUTA
ELKARRIZKETARAKO GIDA**

Pelikula Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ipiniko dute eta bertara joango gara ikustera. Zinemaldiaren egitarauan urteko giza eskubideekin lotutako film labur eta luzeak proiektatzen dira. Donostiako Udalak antolatzen du.

1. Nor da pelikulako zuzendaria?

2. Pelikula Agurtzane Intxaurrea berak idatzitako eta izenburu berdina duten 6 ipuinetan dago oinarritua. Filmaren eta ipuinen azalak konparatuko ditugu komunean zer duten aztertuz.

3. Pelikularen azaleko iruditik, koloreetatik eta hizkietatik abiatuta, zer gauza uste duzue gertatuko direla filmean?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

PELIKULA HITZ BATEAN

Borobilean eserita irakasleak pelikula zer iruditu zaien galdetuko du eta partaide bakoitzari **hitz batean** erantzuteko eskatu. Erantzunak arbelean jasoko dira eta ariketa bukatzean argazkia aterako zaio emaitzari “Zinemaren txokoa edo soka” ariketan erabiltzeko. Aurrez eta laguntza modura, neska mutilekin adjektiboen zerrenda egin daiteke arbelean.

PERTSONAIEN DESKRIBAPENA

Borobilean eserita jarraituko dugu. Arbelean ondorengo zutabeak dituen taula modukoa egingo dugu eta hurrekin pelikulako pertsonaia nagusien zerrenda osatu ostean nolakoak diren eta zer ezaugarri dituzten aztertuko dugu. Aurreko ariketan bezala, laguntza modura eta neska mutilen parte hartzea errazteko, ezaugarrien edo adjektiboen zerrenda izan dezakegu arbelean prestatua.



Nolakoa da?

Zer gauza egiten ditu?

TERESA

ESTHER (AMA)

JON

MARTIN

TIM

TOD

SAM

VLAD





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

GIDOIARI BURUZ

Irakasleak ondorengo galderak egin ditzake:

1. Nola laburtuko genioke lagun bati pelikulan gertatzen dena?
2. Zein izan da gehien gustatu zaizuen pasartea? Zergatik?

Ikasleek bigarren galderari ematen dizkioten erantzunen arabera, taldean, guztion artean gai horiei buruz hitz egiten joango gara. Irakaslea, galderen bidez, loturak egiten joango da pelikulako gai nagusien eta ikasleen erantzunen artean. Jarraian, laguntasuna eta familia kontzeptuei buruz taldean hausnarketa sustatzeko galderak aurkezten ditugu:



**ELKARRIZKETA SUSTATZEKO
PROPOSAMENAK**

Adiskidetasuna

1. Pelikulako azpi-titulua "Adiskidetasunaren magia da". Zein pertsonaia dira elkarren artean lagunak filmean?
2. Teresa eta Tim-ek elkarren arteko abestia daukate. Zergatik egiten dira lagunak Teresa eta Tim? Zergatik ulertzen dira hain ondo elkarren artean?
3. Eta zuek? Nola egin zineten elkarren lagun? Zer egiten duzue elkarrekin lagunak izateko?
4. Nabaria da Teresa eta Tim oso desberdinak direla. Zuek desberdinak diren lagunak daukazue? Zeintzuk dira desberdintasun horiek? Errazagoa da berdinak garenean lagunak izaten edo honek ez dauka adiskidetasunarekin zer ikusirik?



*"Zu ta ni
hezur ta mami
Ni ta zu
Mundu berri bat sortuz
ezberdinak baina, sentipen bakarra
Bidelagun betiko*

*Bakarrik sentitzen nintzen
ingurukoentzat ikuste-ezin
Aurkitu zaitut
geratu nirekin*

*Zoriona hau dela ondotxo dakit
Zu ta ni
hezur ta mami
Ni ta zu
bidean aurrera
Irrifartsu beti
barre algaraka
Betirako udaberria
Hezur ta mami!!"*



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETA
SUSTATZEKO
PROPOSAMENAK**

Familia




1. Nolakoa da Esther, Teresaren ama, Teresarekin? Eta Teresa bere amarekin?
2. Zergatik uste duzue haserretzen direla batzuetan?
3. Uste duzue Teresari gustatzen zaiola anaia txikiagoa izatea?
4. Martin, Teresa - Esther eta Jonen senidea da?
5. Teresaren familia hiru kidez osatua dago; bera, ama eta anaia txikia. Nolakoa dira zuen familiak?
6. Zer behar da familia izan edo osatzeko?






**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**




**ARIKETA:
ZINEMAREN TXOKOA
EDO SOKA**

Ikasgela askotan gai zehatzen inguruko txokoak egoten dira: irakurketaren txokoa, mozorroen txokoa, dendaren txokoa.... ariketa honetan zinemaren txokoa egitea proposatzen dizuegu. Nahikoa izango da apal baten gaineko lekuarekin edo paretatik zintzilikatuko dugun soka batekin.



Idea da neska mutilek etxetik pelikularekin edo Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiarekin zerikusia duten gauzak (irudiak, egunkarietako notiziak, argazkiak, aldizkariak, objektuak...) ekartzea eta sokatik zintzilikatzea. Gure txokoari "Pelikula hitz batean" ariketan arbelari ateratako argazkia gehituko diogu eta baita ere saioetan zehar ateratzen joan garen irudiak.



Amaitutakoan txokoari argazkia atera eta Giza Eskubideen Zinemaldiko antolakuntzara bidal dezakezue **zinema_gizaeskubideak@donostia.eus** Donostiako Udaleko Giza Eskubideen sailera, hain zuzen.